

BERRIZTAPEN TERAPEUTIKOEN FITXA

<http://www.euskadi.net/sanidad>

56. Zkia. - 2001

BUPROPIONA

ZYNTABAC Glaxo Smith Kline

QUOMEM Esteve

150 mg-ko liberazio iraunkorreko 60 konprimituak. Prezioa: 12.744 pta. Medikua erretzetarekin dispensazioa. Osasun Sistema Nazionalak ez du finantzatzen.



TRATAMENDUAREN KOSTUA

Bupropiona (erretzaile guztiak) (300mg/egunean* 9 aste) = 25.488 pta.

Nikotina partxeak (egunean 20 zigarro baino gehiago erretzenduena) (partxe 1/egunean*8 aste)= 21.302pta

INDIKAZIOAK

Nikotina-menpekotasuna duten pazienteentzako tabakoari uzteko tratamendua, motibazio-laguntzarekin batera.

KOMENTARIOAK

Bupropiona nikotinarekin zerikusirik ez duen farmako berria da, tabakoari uzteko tratamenduan laguntza gisa komertzializatua izan dena. Kimikoki antidepresiboa da, baina ez du zerikusirik egun dauden antidepresiboekin; gainera, ez da zehatz-mehatz ezagutzen zein den bere eragin-mekanismoa tabakotik desohitzerakoan.

Bupropionak erakutsi du efikaza dela erretzeari uzteko, plazeboarekin konparatuz egin diren entsegu klinikoetan, horietan tabakorenkontrako-laguntza ere egiten da. Nikotina ordeko terapiarekin (NOT) ere konparatu da, eta bupropiona signifikatiboki efikazago agertu da plazeboa eta nikotina-partxeak baino, bai prebalentzia puntuala abstinenzian baita 12 hilabetetako etengabeko abstinenzian ere. 12 hilabeteko etengabeko abstinenzian ez da diferentzia signifikatiborik ikusi monoterapiaren administratutako bupropiona nikotinadun partxeekin eta bupropionarekin konparatu denean. Bupropionekin pisu gutxiago irabazi da, epe laburrean, eta tratamendua bukatu ondoren efektu horrek ez du iraun.

Gehien azaltzen diren efektu kaltegarriak loezina, aho-lehortasuna eta goragaleak dira. Konbultsioen arriskua (%0,1eko intzidentziakoa) azaltzen da; beraz, konbultsio-arrisku handia duten pazienteei kontu handirekin eman beharko zaie. Bupropion honako pazienteetan kontraindikaturatuta dago: iraganean edo gaur egun arazo konbultsiboak dituztenentzat, iraganean edo gaur egun bulimia edo nerbio-anorexia diagnostikaturatuta dutenentzat, gibel-zirrosia larria dutenentzat, IMAOekin tratamendu konkomitantea dutenentzat edo arazo bipolarren historia dutenentzat; baita ere haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenentzat. Farmako batzuen eragina luzatu dezake: antidepresiboena (desipraminarena, imipraminarena eta paroxetinarena), C1 motako antiaritmikoa (propafenonarena eta flekainidarena), antipsikotikoa (risperidonarena eta tiordazinarena) eta β -erzeptoreen blokeatzaileena (metoprolol).

Ondorio gisa, esan daiteke farmako efikaza dela tabakoari uzteko, bupropiona tabakorenkontrako-laguntzarekin batera erabilia. Ebidentzia erabilgarrien arabera, erretzaile motibatuei soilik eskeini beharko litzaieke, tabakorenkontrako-laguntza erregularrarekin batera. Entsegu gehiago behar dira NOTekin konparatzeko, zeren eta bi terapien artean dagoen konparazio-entsegu bakarrean, pazienteen mota eta baldintzak ez dira usuenik lehen mailako atentzioan izaten direnak. Gaur egun, bupropionen eta NOTen artean aukera egiteko, azaltzen dituzten efektu kaltegarrien eta interakzioen perfil ezberdinak kontuan izan beharko dira, baita pazienteen nahiak ere.



▼ OSO INTERESGARRIA



▼ INTERESGARRIA



▼ ERABILGARRIA NOIZEAN BEHIN



▼ EZ DAKAR EZER BERRIRIK



▼ ESPERIENTZIA KLINIKO GUTXIEGIA